

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Urduñako Udala****2020ko zerga-erroda onespena eta jendaurrean jartzea**

Alkatetzak 2020ko otsailaren 18an emandako ebazpenaren arabera, honako hauxe ebatzi da:

*Lehenengoa:* 2020ko ekitaldiko zerga-errolda hauek behin-behinean onartzea:

- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.
- Merkatu Ibiltaria Larunbatetan Ustiatzeagatiko Tasa.
- Finkak, Hausturak eta Autokontsumorako Baratzekak Ustiatu, Erabili eta Edukitzeagatiko Tasa.
- Erabilera Publikoko Lurzoruan Ostalaritzako Terrazak Jartzeagatiko Tasa eta Hilerria Zaintzeagatiko Tasa.
- Etxez Etxeko Laguntzarako Zerbitzua.

*Bigarrena:* 15 eguneko epean errolda horiek jendaurrean ikusgai jartzea eta, horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, webgunean eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea, interesdunek euren ustez egokiak diren erreklamazioak aurkeztu ditzaten.

Urduñan, 2020ko otsailaren 19an. — Alkatea, Itziar Biguri Ugarte